

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua funtziona dezan hainbat hornitzaile eta bazkide behar dira. Horien laguntza beharrezkoa da proiektua aurrera eramateko. Hauek dira behar ditugunak:

1. Fabrikatzaileak

Fabrikatzaileak dira produktuak diseinatzeko, sortzeko eta merkaturatzeko dituzten enpresak edo erakundeak, normalean eskala handian ekoizpen-prozesuak erabiliz. Hauek guretzat garrantzitsuak dira izan ere, gure gailuak ondo funtzionatzeko, teknologia eta piezak behar ditugu eta haiek egingo dute makina martxan jarri ahal izateko behar den guztia.

2. Osakidetza eta ospitaleak

Gaixoak diagnostikatzeko, tratatzeko eta artatzeko osasun-instalazioak dira. Eta hainbat aparatu erabiltzen dituzte. Hauek garrantzitsuak dira izan ere, gure makina osasun-sistemeekin lotuta dago, eta Osakidetza informazioa jaso behar du erabiltzen denean. Gainera, osasun-langileek makina erabiltzea gomendatu behar dute, jendeari konfiantza emateko.

3. Banaketa-enpresak

Banaketa-enpresak, produktu edo zerbitzuak ekoizleetatik edo fabrikatzaileetatik kontsumitzaileengana edo saltokietara eramateaz arduratzen diren enpresak dira. Horregatik dira garrantzitsuak gure enpresarako makina erabiltzaileen etxeetara edo erosteko toki egokietara iristea ziurtatzen dutelako. Bestela, ezingo genuke gailua saltzea lortu.

4. Diru-laguntzak

Pertsona, erakunde edo jarduera jakin bati laguntzeko emandako diru-kopuru edo baliabideak dira horregatik dira garrantzitsuak, gailua garatzea eta merkatura ateratzea diru asko kostatzen duelako eta laguntza ekonomikorik gabe, ezin izango genuke proiektua aurrera eraman.

5. Segurtasuneko adituak

Segurtasuneko adituak, pertsona bat da, arriskuak identifikatu, ebaluatu eta gutxitzeko estrategiak garatzen espezializatua, jendea, datuak, ondasunak edo azpiegiturak babesteko. Horregatik da garrantzitsua guretzako, gailuak datu pertsonalak gordetzen dituelako, eta hori babestuta egoteaz arduratzen da. Horrela, erabiltzaileak seguru sentituko dira.

6. Marketin-enpresak

Enpresa edo erakundeentzako marketin-estrategiak diseinatzen eta gauzatzen espezializatutako erakundeak dira, helburua bezeroak erakartzea, salmentak handitzea eta marka-posizionamendua hobetzea izanik. Horregatik garrantzitsuak dira, jendeak gure makina ezagutu behar du eta ulertu zertarako balio duen. Horretarako, publizitatea eta komunikazioa behar ditugu.

7. Araudi-ziurtagiria egiten dutenak

Araudi, lege edo estandar jakin bat betetzen dela egiaztatzen duten erakunde, enpresa edo profesionalak dira, eta lege horiek egiten dituztenak. Hauek garrantzitsuak dira izan ere, gure makina seguru eta legearen arabera egina dagoela ziurtatzeko, horrelako enpresek lagundu behar digute. Bestela, ezin izango genuke saldu arazko legalik gabe.

Hauek guztiak behar ditugu gure ideia aurrera ateratzeko eta jendeari benetan laguntzeko. Bestela, ezin izango genuke gure makina erabiltzaileengana iritsi.